

2011KO UZTAILAK 14

14 DE JULIO DE 2011

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2011KO UZTAILAK 14

DIA: 14 DE JULIO DE 2.011

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Azis Alberdi Zaldunbide, jna.
Iñaki Ostolaza Esnal, jna.
Arritokieta Gonzalez Elosua, and.
Eneko Agirre Maiora, jna.
Maitane Agirre Arrieta, and.
Montse Arana Perez, and.
Edurne Egaña Manterola, and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua, jna.
Ana Arranz Irigoyen, and.
Isidro Fernandez Echave, jna.
Aitor Leiza Alberdi, jna.
Emiliano Cabañas Gonzalez, jna.

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión por ematen du. el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA (BILDU):

Arratsalde on eta eskerrik asko, gaur uztailak 14, legealdi honetako bigarren pleno honetara azaldu zareten denori,

Eguneko aztergaietan, batez ere Udal eraketari buruzko plenoa den honetan, lehenengo puntu bezala,

1.- UDAL TALDE POLITIKOEN ETA BAKOITZAREN BOZERAEMAILEEN BERRI EMATEA.

Denok dakigun bezala eta oker ez baldin banago lau talde politiko eratzen ditugu gaur hemen, **EAJ-PNV**ko Udal taldea; **BILDU**ko Udal taldea, **ARALAR**-eko Udal taldea eta **ALDERDI SOZIALISTA**ko Udal taldea. **BILDU**-ren izenean **BOZERAEMAILE**, Iñaki **AGIRREZABALAGA** **ALKORTA** jna. izendatzen da.

EAJ-PNV-ren izenean **Montse ARANA PEREZ** and. izendatzen da.

ARALAR-en izenean **Aitor LEIZA ALBERDI** jna. eta

ALDERDI SOZIALISTAREN izenean **Emiliano CABAÑAS GONZALEZ** jna.

2.- BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORREN ERAKETA ETA OSAKETA, (Bigarren puntua)

Hamar batzorde eratuko dira, legealdi honetan,

Aurrenengo batzordea, **HIRIGINTZA ETA ZERBITZUEN BATZORDEA**,

Bigarren batzordea, **INGURUMEN BATZORDEA**,

Hirugarren, **OGASUN BATZORDEA**,

Laugarren, **PERTSONAL BATZORDEA**,

Bosgarren, **EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA**,

Seigarren, **KIROL BATZORDEA**,

Zazpigarren, **KULTURA BATZORDEA**,

Zortzigarren, **TURISMO ETA MERKATARITZA BATZORDEA**,
Bederatzigarren, **GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA**, eta
Hamargarren, **HERRITARREN PARTAIDETZA, BERDINTASUNA,**
GAZTERIA ETA ETORKINEN BATZORDEA.

Batzorde bakoitzaren osaketari dagokionez, horrela geratuko dira osatuak,

BILDU-ren izenean **HIRIGINTZA ETA ZERBITZUEN**
BATZORDEAN,

IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jna. eta AZIS ALBERDI
ZALDUNBIDE jna,

EAJ-PNV-ren izenean: ANA ARRANZ IRIGOYEN and. eta ISIDRO
FERNANDEZ ETXABE jna,

ARALAR-en izenean: AITOR LEIZA ALBERDI jna. eta

PSE-EE/PSOEren izenean: EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna.

INGURUMENEAN, berriz

IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jna. eta AZIS ALBERDI
ZALDUNBIDE jna, BILDU-ren izenean,

EAJ-PNV-ren izenean: ANA ARRANZ IRIGOYEN and. eta ISIDRO
FERNANDEZ ETXABE jna, eta

AITOR LEIZA ALBERDI jna. eta EMILIANO CABAÑAS
GONZALEZ jna, ARALAR ETA PSE-EE/PSOEren izenean,

OGASUNEAN,

ARRITXU GONZALEZ ELOSUA and. eta IÑAKI OSTOLAZA
ESNAL jna, BILDU-ren izenean,

EDURNE EGAÑA MANTEROLA and. eta MONTSE ARANA PEREZ
and, EAJ-PNV-ren izenean, eta

EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna. PSE-EE/PSOE eta AITOR
LEIZA ALBERDI jna, ARALAR,

PERTSONALEAN,

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL jna. eta ARRITXU GONZALEZ ELOSUA
and, BILDU-ren izenean,

EDURNE EGAÑA MANTEROLA and. eta MONTSE ARANA PEREZ
and. EAJ-PNV-ren izenean, eta EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ

jna. eta AITOR LEIZA ALBERDI jna,

EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEETAN,
AZIS ALBERDI ZALDUNBIDE jna. eta IÑAKI OSTOLAZA ESNAL
jna. , BILDU-ren izenean,
MONTSE ARANA PEREZ, and. eta EDURNE EGAÑA
MANTEROLA and. , EAJ-PNV-ren izenean,
ARALAR-en izenean AITOR LEIZA ALBERDI jna. eta
PSE-EE/PSOE izenean EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna.,

KIROLETAN,

BILDU-ren izenean IÑAKI OSTOLAZA ESNAL jna. eta ENEKO
AGIRRE MAIORA jna.,
EAJ-PNV-ren izenean MONTSE ARANA PEREZ and. eta ANA
ARRANZ IRIGOYEN and., eta
PSE-EE/PSOE izenean EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna. eta
ARALAR-en izenean AITOR LEIZA ALBERDI jna.,

KULTURAN,

BILDU-ren izenean (hemen ez daukat jarrita, baina) ENEKO AGIRRE
MAIORA jna. eta IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jna,
EAJ-PNV-ren izenean MONTSE ARANA PEREZ and. eta JUAN
CARLOS CENDOYA jna,
ARALAR-en izenean AITOR LEIZA ALBERDI jna. eta
PSE-EE/PSOE-ren izenean EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna,

TURISMO ETA MERKATARITZAN

BILDU-ren izenean ARRITXU GONZALEZ ELOSUA and. eta IÑ
AKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jna, eta
EAJ-PNV-ren izenean JUAN CARLOS CENDOYA jna. eta ISIDRO
FERNANDEZ ETXABE jna.
PSE-EE/PSOEtik EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna. eta
ARALAR-tik AITOR LEIZA ALBERDI jna.

GIZARTE ZERBITZUETAN,

BILDU-tik IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jna. eta
MAITANE AGIRRE ARRIETA and. eta
EAJ-PNV-ren izenean MONTSE ARANA PEREZ and. eta JUAN
CARLOS CENDOYA jna.,

AITOR LEIZA ALBERDI jna. eta EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna, ARALAR eta PSE-EE/PSO Eren izenean
Eta azkenik,

**HERRITARREN PARTAIDETZA, BERDINTASUNA, GAZTERIA
ETA ETORKINEN BATZORDEAN,**

MAITANE AGIRRE ARRIETA and. eta IÑAKI AGIRREZABALAGA
ALKORTA jna, BILDU-ren izenean,

EAJ-PNV-ren izenean EDURNE EGAÑA MANTEROLA and. eta
MONTSE ARANA PEREZ and.

ARALAR-tik AITOR LEIZA ALBERDI jna. eta
PSE-EE/PSOetik EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna. izango
direlarik,

Hori Batzordeen eraketa eta osaketari dagokionez,

**3.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA,
ONDORENGO GAI HAUETAN, da hirugarren puntua,**

3.1.- ALKATEORDEEN IZENDAPENAK,

Alkatetzaordeei dagokionez, Alkatetza dekretuaren bitartez, honako
alkateordetzak izendatzen dira.

Lehen alkateordea **ARRITOKIETA GONZALEZ ELOSUA, and.**

Bigarren alkateordea **IÑAKI OSTOLAZA ESNAL, jna.**

Hirugarren alkateordea **AZIS ALBERDI ZALDUNBIDE, jna.** eta

Laugarren alkateordea **AITOR LEIZA ALBERDI, jna.** izango lirateke.

**3.2 TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN KIDEENAK, berriz,
hauek izango lirateke:**

IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA, jna.

ARRITOKIETA GONZALEZ ELOSUA, and.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL, jna.

AZIS ALBERDI ZALDUNBIDE, jna. eta

AITOR LEIZA ALBERDI jna,

3.3 BATZORDE INFORMATIBOETAKO LEHENDAKARIAK, berriz.

HIRIGINTZA eta ZERBITZUAK eta GIZARTE ONGIZATEA BATZORDEETAKOAK,

IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jnak, Alkateak, zuzenean eramango luke.

AITOR LEIZA ALBERDI jnak, **INGURUMENEKO BATZORDEBURUA izango litzateke.**

ARRITXU GONZALEZ ELOSUA andreak, **OGASUNA ETA TURISMO ETA MERKATARITZA BATZORDEENA,**

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL jnak, **PERTSONALA ETA KIROL BATZORDEAK,**

AZIS ALBERDI ZALDUNBIDE jnak, **EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAK,**

ENEKO AGIRRE MAIORA jnak, **KULTURA eta**

MAITANE AGIRRE ARRIETA andreak, **HERRITARREN PARTAIDETZA, ETORKINAK, BERDINTASUNA, ETA GAZTERIA saila eramango luke.**

3.4 ALKATETZAK EGOKI DERIZKION GAIETAKO ESKUORDETZEAK:

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ALDE, honakoak izan dira:

1.- Sailkatutako Jardueren Irekiera Lizentziak (IGOKA) industriak edo merkataritzako establezimenduak edo beste edozein motatakoak eta Obra Handien Lizentziak, beti ere, Zumaiako Arau Subsidiarioen lizentzien eskaera, izapidetza eta exekuzioaren kontrolari buruzko araudi osagarriak ezartzen duen definizioaren arabera, era partekatuan ordezkaturako dira Tokiko Gobernu Batzarrean,

2.- Udalaren kudeaketa ekonomikoa garatzea, onarturiko aurrekontuaren arabera eta Korporazioari azalpenak ematea ekitaldi ekonomikoan egindako operazioei buruz era partekatuan.

3.- Zerga bilketa eta Diruzaintza zerbitzuak antolatzea. Beti ere, Udalbatzak zerbitzu hauei buruzko kudeaketa erak onartzearen kalterik gabe, eta

4.- Udaltzari berriaz eskuduntzan ematen ez zaizkion planeamendu orokorreko onarpenak, hala nola, hirigintza kudeaketako tresnak eta hirigintza proiektuak, era partekatuan eta

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN MAIZTASUNARI DAGOKIONEZ,

Hileko azken ostegunetan ezarriko dira, arratsaldeko bost t´erdietan.

4.- UDAL PLENOAREN BATZARRALDIETARAKO MAIZTASUNA, laugarren puntu bezala.

Batzarraldien maiztasuna, hileko azken ostegunetan ezarriko dira arratsaldeko zazpitan.

Azkenik,

5.- UDALBATZAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA UDALAK ORDEZKATUA EGON BEHAR DUEN ERA GUZTIETAKO ORGANO KOLEGIATUEI DAGOKIENEZ, ERA HONETARA GERATZEN DA:

UROLA-KOSTA, UDAL ELKARTEARI DAGOKIONEZ, Zazpi dira, barkatu, hiru dira aukeratzeko diren kideak Udal Pleno honetatik eta bi BILDU-ren izenean izango dira eta bat EAJ-PNV-ren izenean, BILDU-ren izenean IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jna. eta AZIS ALBERDI ZALDUNBIDE jna. izango lirateke eta EAJ-PNV-ren izenean MONTSE ARANA PEREZ and. izendatuko litzateke.

UREN PARTZUERGOA eta GIPUZKOAKO-URARI dagokionez Alkatea, Estatutuen arabera, Alkatea, IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA jna. izendatzen da bertako partaide, ordezkari, Udal honetako ordezkari izateko.

SAN JUAN EGOITZARI dagokionez, berriz, hemen, Udal talde politiko bakoitzetik bat izendatuko da, era honetara:

BILDU-tik IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA, jna.

EAJ-PNV-tik MONTSE ARANA PEREZ, and.

PSE-EE/PSOEtik EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna. eta

ARALAR-tik AITOR LEIZA ALBERDI jna.

URKOME-ri dagokionez,

Udal ordezkari Alkate izendatuko da, bere ordezko AITOR LEIZA ALBERDI, jna. izendatzen delarik,

MUSIKA PATRONATUAri dagokionez, Lehendakari Alkate izaten da baina KULTURAKo batzordeko kideak baita ere bertako kideak dira, beraz, era horretan KULTURAKo kideak izango lirateke, esan dudan bezala, ENEKO AGIRRE MAIORA, jna.

EAJ-PNV-tik MONTSE ARANA PEREZ and. eta JUAN CARLOS CENDOYA jna. eta

PSE-EE/PSOE EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna. eta

ARALAR-tik AITOR LEIZA ALBERDI jna. izango liratekeelarik.

ESKOLA KONTSEILUARI dagokionez,

HEZKUNTZAKO zinegotzia da bertako ordezkari eta beraz, AZIS ALBERDI ZALDUNBIDE, jna. izango litzateke, eta

EUDELI dagokionez eta Estatutuen arabera, Estatutuen arabera, Alkatea izaten da bertako ordezkari, beraz, ni neu Alkatea izendatuko dugu Eudelen ordezkari,

ZUMAIA LANTZENI dagokionez, berriz, zazpi kide aukeratzen dira bertan hiru BILDUtik, bi EAJ-PNVtik, bat PSE-EEtik eta bat ARALAR-etik hurrenez-hurren eta hauteskundeetan izandako emaitzei erreparatu ezker,

BILDU-tik:

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA, jna.

Arritxu GONZALEZ ELOSUA and. eta

Iñaki OSTOLAZA ESNAL jna.izendatzen dira eta

EAJ-PNV-tik ANA ARRANZ IRIGOYEN and. eta EDURNE EGAÑA MANTEROLA and.

PSE-EE/PSOEtik EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jna. eta

ARALAR-etik AITOR LEIZA ALBERDI jna., eta

ZUMAIAKO KIROL PORTUARI dagokionez, sei, bost kide, barkatu, izendatu beharra daude. Sei kide Eusko Jaurlaritzakoak direlako %49aren akzioen %49aren jabe garen heinean.

Bi BILDUtik izendatuko dira Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jna.
eta Arritxu GONZALEZ ELOSUA jna,
Bat EAJ-PNV-tik Montse ARANA PEREZ and.
Bat PSE-EE/PSOEtik Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jna. eta
Bat ARALAR-etik Aitor LEIZA ALBERDI jna. izendatzen delarik.

Azkenik,

6.- HAUTETSIEN ORDAINKETAK.

Hau bozkatu behar da, nahiz eta puntuan jartzen ez duen, baina bozkatu behar den puntu bat da, eta proposatzen da liberatu bat izatea udaletxean, Alkatearen liberazioa, hain zuzen, Udalhitzeko 19. mailari dagokiona, horrek urtean suposatzen du 41.022,66 urteko ordainketa izango litzatekeela, horri BEZ-aren %20a Gizarte Segurantzza eta Elkarkidetza kontutan izanik edo ordaindu beharrekoak ordainduta, hilean eta likido 2.016€ suposatzen dituelarik.

Hau esan bezala bozkatu beharra dago, eta beraz, bozkatzeko prozedura beteranoak garenok badakigu, baina, beti bozeraemaileari galdetzen zaio eta gero bozeraemaileak kontatzen du bere taldeko zera guztien izenean, beraz, bozkatzeari ekingo diogu, EAJ-PNV?

Bai, zerbait esan nahi baduzu alde zuzenetik, bai, barkatu, bai Montse esan,

MONTSE ARANA PEREZ AND. (EAJ-PNV): Bai, galdera bat edo nik zalantzaren bat, ez dakit entzuten zaidan,

Bueno, alde batetik pixkat gure harridura, aurreko legealdian bi liberatu egon dira, bi kargudun liberatuak egon dira eta oraingoan bat proposatzen duzue, eta orduan gure galdera da Zumaiako Herriaren eskakizun maila jaitsi egin den edo zergatik aldaketa hori, ez?

Hori alde batetik,

Bestetik, jakin nahiko genuke ere zergatik ezarri duzuen 19. maila, bueno, iruditzen zaigu Zumaiako Herri batek daukan biztanlegoaren arabera, erantzukizun handia dauka Alkateak, ardura handia eta herri bateko Alkatea da Alkate eguneko 24 ordu eta urteko 365 egun eta orduan iruditzen zaigu horrek merezi duela edo behar duela udal honetan dagoen goi mailako teknikarien soldataren pare, gutxienez, eh! gutxienez.

Eudelen gomendioaren arabera gehiago izan daiteke, baina bueno, gora ere ez dugu joko baina guri iruditzen zaigu ba... hori; Herri bateko Alkateak erantzukizun handia duelako eta behar du iruditzen zaigu gure ustez dagokion maila. Eta dedikazioa eguneko 24 ordukoa behar dela iruditzen zaigu eta soldata bai jartzen dugu, iruditzen zaigu tokatzen zaiona, baina

baita horren truke kudeaketa eraginkorra emango lioke Alkateak, ez? Eta maila dagokiona eta lana, eta dedikazioa, orduan hori pixkat, nola jaitsi den... maila hori zergatik aukeratu den eta aurreko legealdiarekin konparatuta zergatik murriztu diren liberazioak,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Beste bateren batek, zerbait esateko?

Ez

Printzipioz, gure aukeraketa izan da liberazio bat egitea, hona ekartzen dugun bezalaxe, iruditzen zaigulako eta aztertzen ari garelako ze... beste posibilitate egon litezkeen eta hasiera batean iruditzen zaigulako arrankatzeko nahikoa dela liberazio batekin.

Edozein kasutan erantzukizuna jabe gara eta jabe naiz ni partikularki, eguneko... urteko 365 egunak eskatzen dituela eta 24 orduak ere bai, askotan, bueno askotan ez zorionez, baina noizean behin tokatu izan delako goizeko hiruretan ere bai jaiki izan beharra, ez?

Eta hori independentea dela Alkate batek jasotzen duen soldatarengatik. Ez?

Erantzukizuna, erantzukizuna da, eta bat Alkate da jasotzen duen soldata jasotzen duela eta guri iruditzen zaigu ba... soldata hau duina dela, ondo dagoela eta guk ba... hori proposatzen dugu erantzukizunak erantzukizun, jakinik ba... erantzukizunak, noski, eta kargu honek erantzukizun asko daukala eta horren jakitun gara eta partikularki lau urtean ere Alkate izan naizelako eta oraindik ere jarraituko dudalako,

Beste bateren batek.... Ezer ez,

Ba. Besterik gabe, bozkatzera pasako gara, EAJ- PNV?

MONTSE ARANA PEREZ AND. (EAJ-PNV): Abstentzioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: EAJ-PNV-k abstentzioa, PSOE?

EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ, JNA. (PSE-EE/PSOE): Abstención también

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Abstentzia, ARALARek?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Aldekoa, eta guk ere Aldeko botoa,

Beraz, Zazpi aldeko botorekin eta sei abstentziorekin, onartutzat ematen da hautetsien ordainketei dagokion gaia.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 7 boto (6 BILDU; 1 ARALAR).

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 6 boto (5 EAJ-PNV; 1 PSE-EE/PSOE)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 7 votos (6 BILDU; 1 ARALAR).

Votos en contra: 0

Abstenciones: 6 votos (5 EAJ-PNV; 1 PSE-EE/PSOE)

LEHENENGOA: HAUTETSIEN ORDAINKETAK ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR LAS RETRIBUCIONES A CARGOS ELECTOS

Bukatu aurretik zera adierazi nahiko nuke, Funtzionamenduari dagokionez, abuztua dator, ez da abuztua denok dakigun bezala, inhabila da administrazioan, baina abuztua iritsi aurretik, egun batzuk badauzkagu eta dagoeneko gai batzuk ba... badaukate jorratu beharra eta lana egin beharra dago eta lanean hasi gara Gobernutik, edo gaur egun Gobernua osatzen dugunetik, Gobernua osatu aurretik dagoeneko lanean ari baikinen eta jakinaraztea bakarrik astelehenean, Zumaia Lantzenen Kontseilua izango dugula eta baita ogasun batzordea ere.

Asteazkenean hilaren 20an Pertsonal batzordea izango dugula eta hilaren 26an ogasun batzordea.

Hilaren bukaeran, ez dakigu 28an edo 29an, oraindik dudetan gaude, pleno bat izango dugularik bertan jorratzen diren gai ezberdinen inguruan, eta adierazi baita ere asteazkenean Pertsonal batzordearen ondoren udaletxea

ezagutzeko aukera egongo dela, alegia, kronograma baten bitartez, bakoitzak daukan udaletxe honetan dauden pertsonal desberdinen ba... lanpostua zein den, eskematikoki bada ere, guztiok ezagutzeko ba... zein den zein, nor den nor, eta pixkat familiarizatzen joateko, hori diodan bezala asteazkenean izango da, baina ordua esango dizuet, pasako dizuet, oraindik zehazteko daukadalako, bai arratsaldez, Pertsonal batzordearen ondoren izango da,
Bai Montse,

EDURNE EGAÑA MANTEROLA AND. (EAJ-PNV) Eta asmoa baldin bada, arratsaldean, nik dakidala ez da jenderik egoten

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Bai, printzipioz intentzioa zen arratsaldez eskematxo baten bitartez batez ere jende aurreratzeko ezagutzen joatea eta gero, noski, horren ondoren bateren batek nahi baldin badu pertsona fisikoki ezagutu, goizetan badakit halako jendea ibiltzen dela lanpetuta e.a. baina noski, geratuko ginateke, bilera horretan hitz egingo genuke, eguna zehaztuko genuke eta bixita hori ere egingo genuke,

Bai, Montse,

MONTSE ARANA PEREZ AND. (EAJ-PNV): Barkatu, Bixita da espazio fisikoak ezagutzeko bakarrik? Edo departamentu...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Ez, kronograma baten bitartez, baita ere pixkat ezagutu departamentu bakoitza, bakoitzak egiten duen lana,

MONTSE ARANA PEREZ AND. (EAJ-PNV): Teknikariak egongo dira?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Teknikari bat, printzipioz, eh?

MONTSE ARANA PEREZ AND. (EAJ-PNV): Departamentu bakoitzeko bat?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Ez, ez, printzipioz pentsatzen da Pertsonaleko teknikarien bitartez egitea, eh?

Esaten dudan bezala bilera horretan, jorratuko dugu hobeto gero, behin hori egin da, aizu... ba... goizetan etorri nahiko genuke esplikatu duzunetik aparte ezagutzea pertsona bakoitza zein den, noski, egingo genuke, da aurrenengo -toma de contacto- esaten den bat, gutxi gora behera kronograma bat edukitzeko eta jakiteko udaletxean zein dabilzan lanean eta zein arlotan dabilzan.

Eta ez dakit, honetaz aparte beste galderatik badagoen?

MONTSE ARANA PEREZ AND. (EAJ-PNV): 26an ez da Mankomunitateko bilera?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (BILDU).: Mankomunitatekoa, oraindik zehazki ez dakit, badakit hileko azkenengo egunean dela, baina zehazki ez dakit, ze... badakit Mankomunitateko azken plenoan ondoren denbora batzuk korritzen direla eta ez dakit, -exactamente- gurea den azkena edo esan didaten... Zarautzen, Zarauzkoa da azkena eta horren arabera badakit kontuak zera... egiten dutela, baina edozein kasutan Mankomunitatetik bidaliko digute, pentsatzen dut Lidek, gaur egun jardunean dagoen Lehendakariak bidaliko digula noiz den bertako ba... hitzordua,

Bueno, ba... besterik ez bada, Eskerrik asko eta hurren arte

Barkatu, Itxura denez Web orrian eta jartzeko aurrekoan atera genituen argazkiak ez omen daude oso ondo eta berriz ere eskatzen die, faborez, argazkitxo bat aterako dugun denok, o sea que, hemen aurrean jarriko gara

MONTSE ARANA PEREZ AND. (EAJ-PNV): Eguneratu ere!

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, arratsaldeko zazpirak eta hogeidirenean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las diecinueve horas veinte minutos y yo el Secretario doy fé,

Alkateak,

Idazkariak,